

## APIRILAK 7 | 9h - 17h - PROFESIONALEN EGUNA - Lur Berri Gela

GAIA : Euskal literatura: itzulpenaren gaia. Gaurko egoera, kokapena eta estrategiak

Euskal literaturaren eremuan garrantzi handia du itzulpenak, honi esker euskaraz sortu obra batzuek luzapen bat lortu dezaketelako Euskal Herritik at, edo munduko pentsamendua eta literatura unibertsalean euskaraz sartzea ahalbidetzen duelako.

Egun honen xedea da itzulpenaren nundik-norakoak molde osoan aipatzea: hizkuntzei lotutako testuingurua, itzulpenaren ezaugarri eta zenbakiak, arlo horretako antolaketa profesionala, argitaratzaileen estrategiak eta eragile bereziki publikoen politikak.

Hizlariak egitura hauetatik etorritakoak izanen dira: EHU unibertsitatea, EIZIE itzultzaileen elkarteak, Etxepare institutua, Elkar liburu denda eta argitaletxea.

Eguna liburu munduan jarduten duen orori irekia da (liburuzain, liburu saltoki, argitaletxe, itzultzaile, idazle, ilustratzaile...), baita irakasle, unibertsitateko ikasle, kultur eragile eta elkartekide, edo irakur klubetako irakurle direnei ere.

Mintzaldiak euskaraz izanen dira.

Antolatzaileak : Sarako Biltzarra, Bilketa sarea, Euskal kultur erakundea.

9h: Harrera

9:30 - 10:45 Euskal literatura eta itzulpena: hizkuntza ingurumen honetan zein toki, zein garrantzi, zein harreman.

Elizabete Manterola, Itzulpengintza eta Interpretazio graduako irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean, literatur eremuko itzulpenetan berezitu ikertzailea.

11:00 - 12:15 Euskal literatura itzuliaren merkatua: gaur egungo ekoizpena eta estrategiak.

Peio Uhalt, Baionako ELKAR liburudendako arduraduna.

12:30-14:00 Bazkaria

14:15 - 15:30 EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteten Elkarteak: ereduak itzulpengintza baterako ekarpenak eta lanbidearen erronkak.

Fernando Rey, EIZIEko kidea eta literatur itzultzailea.

15:45 - 17:00 Euskal literatura-sorkuntza nazioartean zabaltzen lagundu: Etxepare euskal institutuaren ekimenak

Imanol Otaegi, Etxepare institutuko kultura zuzendaria

Antolatzaileak: BILKETA sarea - Euskal Kultur Erakundea - Sarako Biltzarra

Hizkuntza: Euskaraz